

OBRA ZIBILA: Obra egikaritzea – Oinarrizko Maila**Hornitzaileen checklista: Ingurumen irizpideak****1. ERANSKINA: BALDINTZAK**

BAI zutabeko laukia markatuz gero, berresten duzu betetzen dituzula bai gutxieneko derrigorrezko espezifikazioak eta bai balora daitezkeen espezifikazioen artean zure borondatez onartzen dituzunak.

Derrigorrezko irizpideak betetzen ez badira, edo horiek betetzen direla egiaztatzen duen abala aurkezten ez bada, eskaintza automatikoki baztertuko da adjudikazio prozesuaren hurrengo faseetarako.

Balora daitezkeen espezifikazioen kasuan, espezifikazioa betetzen dela frogatzen duen abala aurkezten ez bada, berari dagokion puntuazioa ezeztatuta geratuko da, hots, eskaintza onuragarriena identifikatzeko balio duen puntuazioa.

Enpresaren izena:		
DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA / MEMORIAREN ORRIALDEA
Proiektuaren ingurumen-egokitzapenak		
Obra proiektuan ezarritako ingurumen-irizpideetara egokitzeko proposamena	<input type="checkbox"/>	1
Hondakinak kudeatzeko plana		
Hondakinak kudeatzeko plan aurreratua, lhoberen gidaren araberakoa. Hondakinak Kudeatzeko Ikerketari jarraikiz, gabeziak ase behar ditu, eta ikerketarekin bat ez datozen alderdiak zuzendu. Halaber, ziurtatu behar du obrako hondakinak behar bezala bereizten eta kudeatzen direla	<input type="checkbox"/>	1
Makineria		
Obran erabiltzen diren ibilgailuek —hala nola kamioiek— EURO 5 estandarreko emisio-mailak bete behar dituzte	<input type="checkbox"/>	2
Obra egitean ingurumen-inpaktua gutxitzea		
Obraren ingurumen-inpaktua gutxitzeko neurrien proposamena	<input type="checkbox"/>	1

BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA/ MEMORIAREN ORRIALDEA
Tokian bertan eskura dagoen materiala berrerabiltzeko proposamena	<input type="checkbox"/>	1
Ahalik eta material gutxiena erabiltzeko irtenbideen proposamena	<input type="checkbox"/>	1
Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten materialen proposamena	<input type="checkbox"/>	1,2,3,4,6
EURO 6 emisio-mailako makinak	<input type="checkbox"/>	2
Aingeru Urdina ekoetiketan zehaztutako zarata-emisioak egiten dituzten makinak	<input type="checkbox"/>	3

ARGIBIDEAK

“Abal mota/memoriaren orrialdea” zutabeen, espezifikazio eta balora daitekeen irizpide bakoitza betetzen dela bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak sartu dira, edo horri buruzko informazioa jasotzen duen dokumentazioa.

Zenbakiek dokumentazio hau identifikatzen dute:

1. Lizitzailearen memoria	
2. Ekoizlearen dossierra, testak eta fitxa teknikoak	
3. Aingeru Urdina ekoetiketa	
4. I motako ekoetiketak	  
5. FLEGT lizentzia	
6. FSC, PEFC edo ziurtagiri baliokideren bat	 